



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-01-31

VIII.URTEA 1.917.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Areson pailazozen karroza izan zen eta Lizartzan agintariak dantzarien emanaldia ikusten aritu ziren. E. MAIZ-I. TERRADILLOS

UMORE ONA ALDEAN HARTUTA INAUTERI GIROA ZABALDU DA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Lizartzan atzo hasi zituzten jaiak eta datorren asteburuan jarraituko dute; Areson aldiz, gaur amaituko dira 4

Euripean izan bada ere, hasi dira San Blas auzoko jaiak

TOLOSA Gaur dantzariak, aizkolariak eta bertsolariak izango dira, besteren artean 5



Gaske askok eman dute izena Soka-dantza egunean parte hartzeko. E. MAIZ

Entsegu ugari Kaldereroetako Soka-dantza eguna dela eta

ANOETA Aurtengoan goizez neskek dantzatzeko dute plazan eta mutilek, aldiz, arratsalde z 7

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

«Euskaldunok behar dugu 'Euskaldunon Egunkaria'»

Jon Ander Ubeda
Aiuurri astekariko zuzendaria

Aiuurri hamaboskaria inprentan zegoela, eskualdera lurrikara modura iritsi zen 2003ko otsailaren 20a. Hura izan zen itxieraren eta atxiloketen eguna, alegia. Lehenunetik, Aiuurrikerredakzio taldean *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera kezka handiarekin bizi izan genuen. Ezin sinetsita, ezin ulertuta. Ez ginen, ordea, eskuak gurutzaturik geratu. Berehala inprentara jo eta aldizkariko hirugarren orrialdean, banan bana eta tanpoi gorria erabiliz, «Euskaldunok behar dugu EUSKALDUNON EGUNKARIA» esaldia txertatu genuen. Bestalde, Egunkariako lantaldeari gure bulegoak eta balia-bideak eskaini genizkion behar zutenarako. Itxiera salatzen Aiuurrikerredakzio batzordea Manuel Larramendi Bazkuneko talde eragilearekin bildu zen. Ideia ezberdinak aztertu eta gero, bilera hartatik abiatu zen *Hitza eta doinua* Egunkariaren alde egitasmoa. Aiuurrikerredakzio lantaldeak egin zituen antolaketa lanak eta Amasa-Villabonako Udalen laguntzarekin musika eta hitza baliatu genituen *Egunkariako* langileei elkartzasuna adierazteko. Hura 2003ko martxoaren 21ean izan zen, *Egunkaria* itxi eta hilabetera. Villabonako Gureako taulagainera igo ziren Joseba Tapia, Gorka Urbizu, Anari, Mikel Markez, Iker Goenaga, Txuma Murugarren, Imanol Ubeda edota Iñigo Muguruza musikariak. Eta idazle-artearen, Juan Krutz Igerabide, Harkaitz Cano, Xabier Gantzarain,

Egunkariako langileen izenean Juan Luis Zabala kazetariak ere parte hartu zuen. Gurean lehenbiziko aldiz eskaini zen ikuskizunean oinarrituz Euskal Herriaren barrena *Hitza eta doinua*, *Hitza eta dantza* eta antzeakoak antolatu ziren hurrengo aste eta hilabeteetan.

Gertaera latz horietatik zazpi urte luze beteko diralaster. Epaike-ta amaizten ari da, sententzia iritsiko da gero. Txema Auzmendi, Joan Mari Torrealdai, haientzat absolutzioa besterik ez dugu espero. 2003az geroztik Auzitegi Nazionallean gezurra ari duelako.



Euskara eta herri mugimenduen kontrako kriminalizazio garbia

Joxemane Irigoien Sanzberro
Tipi Tapa fundazioa

Datorren otsailaren 20an beteko dira 7 urte Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailearen aginduz Guardia Zibila *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta hainbat lagun atxilotu zituenetik. Ordukoa ez zen lehenengo aldia gisa honetako operazioa polizia gertatzen zena.

Beste batzuen artean, Egin eta Egin Irratiaren itxiera gertatuak ziren 1998an eta, 2000. urteko udan hasi eta pare bat urtez, Ttipi-Tapa Telebistak ere bere larriarn sumatu zuen 'justiziaren atzaparra' Jon Abril kontrako auziarekin Espainiako Auzitegi Nazionalaren aurrean telebistarako irudiak hartzeagatik.

Alabaina, *Euskaldunon Egunka-*

riaren kasuan egiazko bidegabekeria gauzatu da eta, zorritzarekin, oraindik hortxe darrai, bukatu gabe. Egoera politikoa konkretu baten testuinguruan abiatu zen guztia, Aznarren bigarren agintaldia zen orduan. Euskararen alde diharduten erakunde sozialak ETArekin lotzea gauza arrunta zen orduan.

Gaur egun ere halaxe gertatzen da maiz. Guardia Zibilaren txostenetan ageri ziren argudio eta akusazioei jarraiki, ETako kide izatea leporatzen diete Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxel Otamendi eta Xabier Oleagari.

Eta akusazioak dioena egia edo gezurra den jakin baino lehen, *Euskaldunon Egunkaria* ixtea agindu zuen epaileak. Zuzenbidezko Estatuetan prozedurak,

itxuraz, beste manera batean gauratzen direla dirudien arren, 7 urte beteko dira istantean epaileak 'kautelazko' agindua eman zutenetik, eta zuzenbideko oinarririk gabeko auzia dela agerikoa den arren, gaur da eguna oraindik ezin dela jakin auziak nolako bukaera izanen duen.

Bidean, zorionez, aurrekaririk gabeko elkartzasun-oldea erakutsi du euskal gizarteak, Euskal Herri-tik kanpo jasotakoak ere ahaztu gabe.

Neurri honetako bidegabekeriak eskatzen zuen holako erantzuna. Gertatutako gauza guztien zerbait positiboa bilatzen hasita, horixe baita azpimarragarria.

Noiznahi ordua da behingoz *Egunkaria* auzia behin betiko artxiba dezaten eta sortutako kalteak konpon dituzten.



» **Uzturretik**

Iratxe Etxebeste

Haiti

Bete dira kaleak kontu korronte zenbakiarekin, Haitira joandako boluntarioen istorioekin, Gobernuz Kanpoko eta gobernuz kanpoko erakundeetako propagandarekin.

Oraindik hondakinen artean agertzen diren umeen sufrimenduari gosalten dugu, janaria lortzeko indarka ari diren jende-oldeen desesperazioarekin bazkaldu, hobi komunak kare usainarekin afaldu. Eta gure inpotentziari bide emateko, bete dira kaleak kontu korronte zenbakiarekin.

Brasilarrak haserre dabilta amerikar soldaduek agintzen dutelako Port-au-Princeko aireportutako pista pitzatuetan. Frantziarrak kezkatuak daude irlan betidanik izan duten protagonismoa galdu egin dutelako. Mediku kubatarrek, denen buru dabilzanak, horiek ez dira telebistan agertu ere egiten. Eta Haitiz, 'bere historia beltzaz', apenas entzuten den ezer. Lurrikarak ere lehen mundua deitzen den horretatik kontatzen dira.

Afrikako esklaboak matxinatu zirenean sortu zen Haitiko estatu, gerra odoltsuaren ostean, orain dela berrehun urte baino gehiago.

Munduko lehen antolakuntza beltzari isuna ezarri zioten herrialde boteretsuek 'garai hartako milioika franko', eta independentziaren prezioa ari dira, oraindik ere, ordaindu ezinik.

Halako lurralde kolpatuetan izaten dira hondamendiak hondamendiago.

Gure eskualdetik urrun dago Haiti, baina urrunago egongo da asteak pasatu ahala, berriak hain berri izango ez direnean.

Karteletan kontu korronte zenbakiak horitzen direnean. Beste nonbait beste Haiti bat lehertzen denean.

Giro beroa azoka egun benetan euritsu batean

Azoka » Eguraldi petrala nagusitu bazen ere eguerdirako hutsuneak ageri ziren salmenta-postuetan.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna nahiz eta euripean ospatu, nahiko animazio polita eskaini zuen. Goizeko lehenengo orduetan ohizkoek beraien erosketak egin zituzten eta pixkanaka, bisitarien kopurua gora egin zuen. Eguerdialdera mahaietan saldutako produktuek utzitako hutsuneak ageri ziren eta erosleek poltsak beterik zeuden.

Barazkien artean aipatzekoa da egun hauetako aza, azalorea eta bestelako Brassicácea-ren familiako espezieak. Baita ere baratxuri freskoak, porruak, letxugak, eskarolak eta zerbak, besteren artean.

Atari kaleko arbolen postuak ere bere tokietan ikusi genituen nahiz eta euriarrekin sufritu. Hantxe izan ziren frutalak, haritzak, pagoak, norteharitzak, insignisak eta bestelako baso espezieak ere.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Erroreroa	4,00	6,00
Zainzuria	2,80	-
Dipladenia	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoak potetan	9,00	-
-----------------	------	---

Fruta

Kiwia	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Irasagarra	1,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Tipula	0,80	1,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,00	4,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldea@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Istorio guztia arretaz jarraitu zuten agintariak. I. TERRADILLOS



Tabernan gertatzen zen parodiaren zatietako bat. I. TERRADILLOS



Herriko gazteak, umorea eta musika lagun zituztela, baserri baserri eskean ibili ziren. E. MAIZ



Pailazoz betetako traktorearen atzetik guraso eta herritarrek ibili ziren. E. MAIZ

Busti arren umorea lagun hartuta

Inauteriak » Areson gaur herrian barrena ibiliko dira eskean eta dantzaldia ere izango dute; Lizartzan ostiralean izango dute berriz ere festa.

ENERITZ MAIZ

Euria, euria eta euria. Areson baita elurra ere. Herria zuritzea lortu ez arren, ez da urrutian ibili. Hala ere, herritarrek eta Inauterizaleak, umore ona aldean hartuta kalera ateratu ziren. Leitzako Ihoten ostenan, Areson eta Lizartzan ere Inauteriak ospatzen ari dira. Aresoa-

rrek gaur bukatuko dituzte eta Lizartzarrek, hurrengo asteburu osoa ere Inauteriak ospatzeko izango dute.

Lizartzan, urtero legez, antzerki parodia eginez eman zieten hasiera jaiei eta Otsolar dantza taldekoak ere hartu zuen parte. Lizartzan hala ere, otsailaren 5, 6 eta 7a arte

itxaron beharko dute berriz ere jai giroan murgiltzeko. Izan ere, ostiralean, herriko eskolak antolatuta mozorro festa egingo dute eta herrian zehar kalejira ere izango da. Larunbatean, kalejira 07:00etan hasiko dute eta gosaria eta bazkaria ere izango dituzte. Baita talo eta bertsoez lagundurik, sagardo dastatzea ere. Igandean berriz eta aurtengoei agur esanez, meza, hamai-ketakoak, dantzariak, bazkaria, txaranga, jokoak eta zozketak izango dira. Bukaera emateko, berriz, gauean ijitoa erreko dute.

Areson gaur izango dute jaien azken eguna

Atzokoan eguraldi txarrari kasurik egingabe, kanpotik eta barrutik bustiz gustura ibili ziren herriko gazteak baserri baserri eskean. Trikiti doinuak lagun hartuta, kantuan pasa zituzten orduak.

Jan eta edanerako ere, ez zitzaizen ezer faltatu gazteei. Baserri guztietatik sartu irtenak egiten, goizetik hasi eta iluntzera bitarteko lan ederra hartu zuten. Eguna jaten pasa ostean, behar bezala bukatzeko, gauean ere mahaiaren

bueltan bildu eta afdari ederra egin zuten Pake-Toki Elkarteak.

Haurrak eta gurasoak ere, beraien mozorroak jantzi, aterkiak hartu eta kalera ateratu ziren. Apain apain jantzitako traktorean sartu eta kaleetan barrena ibiliz, Inauterietan daudela gogorarazi zieten herritarrei. Ondoren, txokolatada egin zuten trinketeak.

Beharbada gaurko eguna, zuri zuri esnatuko da. Baina ziur, ajeak aje, herriko gazteak mozorroak aldean hartu eta herri osoan zehar musika doinuekin giroa alaituko dutela.

Haurrek ere, Eritz Magoaren magiaz gozatzeko aukera izango dute gaurkoan eta dantzarako go-go duenak ere aukera izango du Alaitz eta Gorka herriko trikitilarien doinuekin.

» ARESOKO GAURKO EGITARUA

- 10:00etan. Gosaria.
- 11:00etan. Eskea herrian barrena.
- 17:00etan. Eritz Magoa.
- 18:30ean. Dantzaldia Alaitz eta Gorka herriko trikitilarietara.



- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza. Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

Matrikulazio epea:
Otsailaren 1etik 12ra

Matrikulazio Ordutegia:
☎ 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net





Irurako Ikastola

- (2-12 URTE)
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

“HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN”

Zilar kalea 4 - San Migel 5 • IRURA - Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net





Janari bilketan parte hartzeko deia

TOLOSA • Sahararren aldeko janari bilketa azken txanpan sartu da dagoeneko, eta herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzeo helburuz, kalera irten ziren atzo goizean Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak.

Haima jarri zuten Triangulon eta saharar musika entzutearekin batera, bertako ohiko jakiak dastatzeko parada izan zen. Espero baino gutxiago ari dira jasozten, eta jendea animatu nahi dute parte hartzera. l.t.



Egurdiak lagundu ez arren hainbat lagun aritu zen tokan. l.t.

Euritan igaro da San Blas auzoko jaien lehen eguna

Tolosa » Eguraldi txarraren ondorioz jende gutxi gerturatu zen auzora; gaur goizean goizetik hasiko dira ekitaldiekin.

» GAURKO EGITARAUA

■ **09:00.** Diana, Konpenezinak txarangarekin.

■ **11:00.** Amaroako dantzarien saioa.

■ **12:30.** Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolaria.

■ **13:00.** Angel Mari Peñagarikano eta Sustari Colina bertsolariak.

■ **18:00.** Bertsolarien bigarren saioa.

■ **18:00-21:30.** Elustondo anai-arreba trikitaliak.

INIGO TERRADILLOS

Negu neguko giroa, desatsegina, izan dute San Blas auzoko jaietako lehenengo egunean. Izan ere, eurriak ez zuen atsedetik hartu egun osoan, eta beraz, traba izan zen iragarrita zeuden ekintzak egiteko.

Gaztetxoentzat jolasak jarri zituzten eguerdian, eta bazkalostean toka txapelketa. Jende gutxi bildu zen, baina bai txapelketa egin eta lagunartean egoteko adina.

Gaurkoan, berriz, goizean goizetik hasiko dira festa giroarekin.

Dianaren ostein dantza, herri kirolak eta bertsoak, eta arratsaldean bertsoak izango dira berriro trikitaliarekin batera.

Biharko atsedena ondoan etzi jarraituko du festak, eta asteazkenean izango da egun nagusia.



Borroka-arten dotorezia

LEITZA • Euskal Herriko Wushu-Kung Fu-Taichi Txapelketa hartu zuen atzo goizean Leitzako kiroldegia. Aurrera Kultur Elkartek eta Wushu-Kung Fu Euskal Federakundeak antolatutako txapelketak ikusizun

berezia eskaini zuen, izan ere, sail desberdinetako moduak edo formak ikusteko aukera izan zen, eta horiek dotoreen egiten zituena lortzen zuen saria. Parte-hartzaile ugari izan zen txapelketan. ENERITZ MAIZ



Euskal presoen borrokaldiarekin bat

IBARRA • Herenegun egindako manifestazioaren ostean ekin zion herriko 20 pertsonak baraualdiari udal-txean. Iragan astelehenean hasi ziren Frantziako eta Espainiako espetxeetan dauden euskal presoak —es-

kualdekoak tartean— gose greban «estatus politikoa» errekonozimendua aldarrikatzeko», eta ibartarrak burutzen ari diren ekintzarekin babesa adierazi nahi diete. Gaur 17:30ak arte luzatuko dute baraualdia. l.t.

PELLO ERROTA herri ikastetxea
Artea - Elizmendi 2/3
Telefonoa - Faxa (943) 86 22 15
Herri telefonoa (943) 86 22 20
Posta elektronikoa: pello@pelloerota.net
Web orria: www.pelloerota.com

ASTEARIKO ETA LAPRAULGO ESKOLA
1.6ur hezkuntza (2-9 urte)
Lehen hezkuntza (9-12 urte)

Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak
- Erreparariak

Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak
- Balibideak

Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuak

Maiztasun zabala: Otsaieraren 1etik 12ra

LASKORAIN IKASTOLA
1990. urtean sortu zen. 2004. urtean

KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE
www.laskorainikastola.net | tolosa@kastola.net | 943 867 127



Anita Aiestaran bere ikasle batzuekin Aranburu Jauregiaren ondoan 1950 inguruan. Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: 1. ilaran, ezezaguna, Arantxa Errasti, Alberdi, Izaskun Errasti, ezezaguna, Milagros Urteaga, Itziar Aierza, Goikoetxea 'Txitxa', Jose Agustín Zubeldia eta bere azpian M^o Jesus Urteaga, Tere Zubeldia eta Maribel Gil; 2. ilaran, Arantxa Aierza, Josexto San Sebastian, Jose Manuel Artutxa, Juan Bautista Aranzabe, Anita Aiestaran (irakaslea), Alfonso Jimenez, atzean Jose Antonio Olano, M^o Carmen Martinez, Izaskun Urteaga, Izaskun Garikano, Mila Elduien eta Arantxa Elduaien; 3. ilaran, Arantxa Urkia, M^o Luz Colmenero, Mañoli Aranzabe, Izaskun Arnaiz, M^o Angeles Barrio, Fermina Balda, Jose Ramon Aierza, M^o Carmen Iza, Urteaga, ezezaguna, Ignacio Etxeberria, Ignacio Artutxa, Javier Jimenez, Urteaga, Jose Ramon Garikano, Ramon Amonarriz, ezezaguna, atzean Elduaien eta Dorita Perez; 4. ilaran, Joaquin Ormazabal, Izaskun Balda, ezezaguna, Jose Manuel Sanchez, M^o Rosario Olano, Francisco Mariezkurrena, Izaskun Mariezkurrena, Jose Mari Saralegi, Bonifacio Elduaien, Miguel Angel Martinez, Etxarri, Juantxo Karrera, Begoña Arnaiz, Marisol Olano, Justi Lope, Jose Mari Urkola, Perez eta ezezaguna; 5. ilaran Ramon Barrio, San Vicente, ezezaguna, Angel Colmenero, Jose Luis Abarrategi, atzean ezezaguna, Antxon Zubeldia, Elduaien, M^o Angeles Lopetegui, Elena Lopetegui, ezezaguna, Ana Mari Artutxa, Manoli Errasti, Blanqui Etxeberria eta Nekane Urteaga. HITZA

Aranburu Jauregian 1950-60. hamarkadetan eskola txiki bat izan zen, Anita Aiestaran irakaslearekin; Alde Zaharreko eta inguruko baserrietako neska-mutil asko aritu ziren bertan lehen ikasketak egiten.

Bizkonteko andereñoa

JOXEMI SAIZAR

Tolosar askok gogoan izango dute Bizkonteko andereñoa, Aranburu Jauregian klaseak ematen zituen Anita Aiestaran (Tolosa, 1926) irakaslea. Alde Zaharreko eta baserri auzoetako neska-mutil asko pasa ziren bere eskolatik. Bost urterekin hasi eta irakurtzen, idazten eta matematikako lau erregela nagusiak erakusten zizkien Anita andereñoak. Bakarka, batzuei euskaraz eta besteek gazteleraz. Handik batzuk beste ikastetxe batzuetara jo zuten. Beste ikasle batzuentzat hura izango zen bere bizitzako ikastetxe bakarra. Irakaslearekin eta bere ikasle ohi batzuekin egoteko aukera izan du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, garai haiek gogoratzeko.

Haurtzaroa ez zuen erraza izan andereñoak. «San Blaseko Zumaín baserrian jaio nintzen. Gero San Esteban eta Olarrain auzoetan bizitu nintzen. Aita gazte hil zen eta amak lan asko egin behar izan zuen lau seme-alabak aurrera ateratzeko. 1935ean Aranburu Jauregi joan ginen bizitzera, Villafuerteseko bizkontearen jauregia zaintzera. Jose Manuel Zabala Fernandez de Heredia zen nagusia eta Manuel Onieva administratzailea. 265 baserri eta kaleko etxe omen zituen. Udan etortzen ziren

Tolosara, hilabete bat pasatzera eta beste hilabetea Gorritin pasatzen zuten. 1990 arte jauregian bizi izan gara», gogoratzen du Anita Aiestararek, bere ahizpa Milagrosen laguntzarekin.

«Oria akademian ikasi nuen, tren geltoki inguruan, oinarriko ikasketak eta kontabilitatea. Garai haietan zaila zen gehiago ikastea eta 18 urterekin hasi nintzen klaseak ematen gure etxean, Aranburu jauregiko gela handi batean», dio irakasleak. Ikasleak nola bildu zituen ez du gogoratzen, baina Alde Zaharreko ikasle asko eta baita baserri auzoetakoak ere izan zituen: San Blas, Santa Luzia, Amarotz.....

Ahoz aho zabaltzen joan zen eta ikasle asko izatera iritsi zen. Etxekoak ere bere ikasleak izan ziren. «Sei urterekin hasi nintzen eskolan, baina ordu arte etxean izebarekin ikasten aritu nintzen. Etxeko guztiak pasatu ginen bere eskutik», dio Ines Arrieta ilobak. Argazkian 76 ikasle ikus daitezke, txanda desberdinetan aritzen ziren Anita andereñoarekin ikasten.

Irakasle partikularra

Horrelako irakasle partikular gehiago ere ba omen zengarai hartan: Periko Etxeberriaren emaztea (plaza Zaharreko zebaderikoa), Balda Txerri plazan, Arsuaga... Hauengana ikasle handixeagoak



Anita Aiestaran . JOXEMI SAIZAR

joaten ziren. Eta Belate auzoko Jesusen Zerbitzariak ere haur txikiak hartzen zituzten.

Bost urterekin hasten ziren eta lauzpabost urte egiten zituzten bertan, irakurtzen, idazten eta lau erregelak ondo ikasiz. Lehen Jau-nartzea egitera batzuk mojetara edo apaizetara joaten ziren. «Gero batzuk handik beste ikastetxe batera joaten ziren ikasketak jarraitzen eta nondik zetozen nabaritzen zela esaten zieten, oinarriko gauza horiek oso ondo ikasita joaten zirelako», dio Milagros Aiesta-

ranek. «Bakarka erakusten zigun. Euskaldunoi euskaraz eta erdaldunoi gazteleraz. *Xabiertxo* liburua genuela gogoan dut. Ordu pare batez aritzen ginen han. Gero etxera eraman eta ikasten genuen. *Martin Txilibitu* ere bagenuen», aipatzen du Jose Ramon Garikano ikasle ohiak. «Gaztelera tutik ere ez nekiela joan nintzen eskolara, etxean eskulan hitz batez nuen entzun erdaraz. Eskola hartako sarriera eta eskaileretan gora nola joatengingogoratzen dut. Konde-neko Anita deitzen genion irakasleari. Bere abizenik ez nekien», dio Elena Lopetegui ikasle ohiak. Klaseak euskaraz emateagatik sekula ez zuela arazorik izan dio irakasleak. Gaur egun Errota haur liburutegira doan kale estu hori ikasleen zain egoten ziren amez beteta gogoratzen du.

Ikasle ohien testigantzak

Juan Bautista Aranzabe ere ikasle izan zen: «Lau urterekin hasi eta agian hamar bat urte egingo nituen bertan. Oinarriko gauzak ikasi eta Anitak utzi zuenean Sancho eta Aranburu irakasle partikularrekin jarraitu nituen ikasketak. Gehiena gazteleraz egiten genuen. Jolasleku ondoko patioa zen», dio.

Maria Jesus Urteaga 6-8 urterekin joan zen eskola honetara: «Aurretik beste irakasle partikular ba-

Oinarriko ikasketak ondo ikasita joaten ziren ikasleak handik beste ikastetxeetara

Mutilak eta neskak batera aritzen ziren ikasten, ez beste ikastetxeetan bezala

Larunbatetan Santa Maria mezetara joaten denean eskola zegoen tokira joaten da Anita

tekin aritu nintzen Belate inguruan. Gazteleraz ez nuelako ulertzen negar eta negar aritzen nintzela gogoratzen naiz. Gero Anitarengana joan nintzen. Jolasean Aranburu jauregiko lorategian aritzen ginela eta gela txiki batean ikasten genuela gogoan dut, baina askoz gehiago ez. Bederatzi urterekin mojetara joan nintzen», dio.

Mutilak eta neskak batera joaten ziren Aranburu jauregiko eskolara. Garai haietan (1940-50 hamarkadak) ez zen ohikoa. Eskolapioetan mutilak bakarriz zeuden eta mojetan, neskak. Eta munizipal-eta aparte aritzen ziren neska eta mutilak. «Oso progresista zen, garai hartan ikustea bezalatu zen 3R pelikula bezala. *El ultimo cuple* pelikula zen 3R, adibidez», aipatzen du bere ahizpa Milagrosen.

Kantak euskaraz

Larunbatean klasea izaten zena garai haietan eta ostegun arratsaldean ez. Asko abesten zuten.

Maiatzean Mariaren loreak eta Eguberrietan ere abesten zutela gogoratzen du irakasleak. *Haurtxo danok alkarturik jolastera baigoaz* eta *Nahi badezute ostegunian* zioen kanta gogoratzen du Garikano. Marrazketa eta pintura ere ematen zuten.

Urte batzuetan irakasle gisa aritu ondoren, erizain joan zen Valdecillara (Kantabria). «Oso elizkoia izan da beti ahizpa. Moja nahi zuen berriko Merzedarietara, baina titulurik eta dirurik ez zenez, ezin izan zuen joan. Eri-zain joan zen», dio Milagros Aiestaranek. Han gaixotu eta itzuli zenean berri, urte batzuetan aritu zen klaseak ematen. Samaniego ikastetxea ireki zenean, bartan lanean hasteko eskaintza jaso zuen, baina orduan Ordizian bizi zen ez hori ikasleen zain egoten ziren amez beteta gogoratzen du.

Gaur egun, alargunduta dago, Tolosan bizi da eta egunero ateratzen da jubilatuen egoitzara. Arantzazuko egutegia irakurtzen du egunero euskaraz. «Euskara polita da, baina gaztelera errazagoa da», dio. Ikasleek gogoratzen da. «Askok egiten didate kaso. Jubilatuetara joaten naizenean edo kalean gutxienean pentsatzen dudan tokian zerbait esaten didate ikasle izandakoek. Larunbatetan Santa Mariara joaten naiz mezetara eta gero eskola zegoen tokia ikustera», azaltzen du.

Kalderero egunez, sokaren bueltan dantzan

Anoeta » Otsailaren 6an, Soka-dantza eguna ospatuko dute. Baserriz baserri ibili ostean, bazkaldu eta gero plazan egingo dute saioa.

ENERITZ MAIZ

Urtero legez, aurten ere, Kaldere-
ro egunez Anoetan Soka-dantza
eguna ospatuko dute. Horretarako
urtarrila hasieratik entsegua egiten
ari dira bertan parte hartu behar
duten herritarrak.

2003. urtean berreskuratu zuten
Dantza-soka eguna Anoetan. Lehen
San Joan egunez izaten zen, baina
Kalderero egunera aldatu zutela
kontatu digute Gorka Otxoak eta
Alazne Ruizek. Lehen mutilak bakarrik
izaten zirela diote baina 2003. urte-
tik neskek zein mutilek hartzen dute
parte. Alde batetik neskek daude eta
bestetik mutilak. Garai batean ordea,
egun honetan mutilak bakarrik izaten
ziren.

Gaur egun, 12 urtetik gorako neska-
mutilek parte hartu dezakete eta
aurten gaztetxo dezentean animatu
dira. Bi aurrekulari eta beste bi atzes-
kulari izaten dira festaren gakoak.
«Aurten, bi gaztek eta bi helduk
hartuko dute paper hori eta lan hori
animatzen denak egin dezake. Kate
bat da. Aurrekularia aurrean doa eta
atzeskularia atzean. Eta kate guztiak
buelta egiten du, soka bat da. Plaza-
ra ateratzen dira eta desafio bat egiten
dute. Jarraian guztiak, soka-dantza eta
axeri-dantzakoak, taldeka ateratzen
gara», azaldu du Alazne Ruizek. Ondoren,
aurrekulari eta atzeskulariak, agurra
dantzatzeko diote beraiek plazan
dauden pertsonetatik aukeratzen
dutenari.

» DANTZA-SOKA

Entsegu orokorrak

- **Bihar, otsailak 1.** 19:30ean, kiroldegian.
- **Otsailak 5.** 20:00etan, kiroldegian.

Otsailak 6, larunbata Dantza-soka eguna

- **Goizean.** 08:30ean elkartu eta baserriz baserri ibiliko dira.
- **12:00.** Plazan elkartuko dira. Nesken txanda izango da.
- **Bazkaria.** Kuku Elkartearen guztiak babarrunak jango dituzte.
- **Arratsaldean.** 17:30ak aldera plazan elkartuko dira dantza egiteko. Mutilen txanda izango da.
- **Jarraian.** Talogileak eta erromeria izango dira jaiarekin jarraitzeko.

100 lagundik gora biltzen dira festa honetan eta neska gehiago badira ere, alde ez da hain nabarmena izaten. Aurtengoan gazteetan Ane Urkola eta Iker Jauregi izango dira dantzariak eta helduetan, berriz, Idoia Lekuona eta Koldo Aldabe.

Egun osoko festa

Otsailaren 6a, larunbata izanagatik, goiz esnatuko da Anoeta. 08:30ak aldera elkartuko dira eta 09:00etarako bitaldetan banatuko dira dantzariak. Baserriz baserri dantzan ibiliko dira.

Anoetarrek ez dute ezer eskatzen, «axeri dantza, arin arina eta fandangoa dantzatzeko ditugu» dio Otxoak. Iaz lehenengo aldiz, baserri bakoitzean argazki bat ateratu zuten bertakoekin eta aurten, oroigarri moduan argazkiak emango dizkiete baserritarrei.

12:00etan, berriz, plazan elkartuko dira eta aurten goizean, neskek tokatzen zaie dantza egitea.



Ane Urkola, Iker Jauregi, Koldo Aldabe eta Idoia Lekuona dira aurrekulari eta atzeskulariak. E. MAIZ

Behin plazakoa bukatuta, bazkaria egingo dute parte hartzaile guztiak Kuku Elkartearen. Bertan, babarrun jatea egingo dute.

Sabela ondo bete ostean, «17:30ak aldera berriz plazan elkartzen gara eta arratsaldean mutilei tokatzen zaie dantza egitea», dio Gorka Otxoak.

Egunari jarraipena emateko berriz, erromeria izango da eta talogileak ere izaten dira. Eguraldi ona izanez gero plazan egingo da baina, txarra izanez gero frontoian egingo litzateke.

Aurrekulari eta atzeskulariak

Lau dantzariak lehen aldiz izango dira aurrekulari eta atzeskulari. Arestian aipatu moduan, bi gazte-
enak aurrekulari izango dira eta

atzeskulari papera helduenek bete-
teko dute. Ane Urkolak 14 urte ditu eta lagun batek animatu zuen aurre-
kulari izatera, «polita irudituko zitzaidan», dio. Hala ere, dantza mundua ezaguna du Alurr dantza taldean dantzatzeko baita, «ilusioarekin, baina pixka bat urduri nago», argitu du.

Iker Jauregik 12 urte baino ez ditu arren, arrebak esanda animatu zen aurrekulari izatera. «Festaren lehenengo aldiz parte hartuko dut eta oso gustura nago». Dantzan ibilgabea da Jauregi, baina «nahiko ondo moldatzen naiz eta arrebak etxean ere erakusten dit». Idoia Lekuonak 40 urte ditu, iaz festan parte hartu zuen eta aurten berari proposatu zioten atzeskulari lanak egitea. «Dantza mun-

duan txikitzen ibili nintzen baina aspaldi. Saiatzen ari gara entseguetan eta dantza horiek egiteko moduan izango naiz egunean», dio. Momentuz lasai dago, baina «denek esaten didate plazara iristean izango ditudala, egun oso polita izango da». Koldo Aldabek, berriz, 39 urterekin egingo du plaza erdirako jauzia. «Aurreko urteetan ikusle gisa izan naiz eta aurten dantza ikastaroetan hasi naiz eta bertan animatu ninduten. Beldur pixka bat badut, baina uste dut nahiko maila emango dudala».

Bukatzeko dantzariak eskerrak eman nahi izan dizkie Kuku Elkarteari, Gazte Asanbladari eta baita herriko talogileei ere. Festa Udaltzen eta kultura batzordearen bidez antolatzen dute.



Dakitenek, ez dakitenei erakusten diete dantzan. E. MAIZ



Izena eman dutenak entseguetan elkartzen dira. E. MAIZ


@ Zurea da Hitza. Sartu gure webgunean eta eguneko egunkaria eta azken orduko berri-
ez gain, Zurea da Hitza atala aurkituko duzu. Bertan zure herriko, auzoko edota inguruko berri eman dezakezu. Kexak, iritziak edota gomendioak ere idatz ditzakezu bertan. Zure hitzak ere badu tokia gurean:

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

- **Urrezko katea.** Amezketako Zazpi-lturi inguruan urrezko katea aurkitu da. J.Z. inzialekin. Deitu, 678 47 66 12 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-ko Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Udal Txistulari Banda eta Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da gaur lurrea-mendi egoitzan 11:30etik aurrera. Donostiako Danborradako, Kalderoetako eta Inauterietako doinuak eskainiko dituzte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo kalea, 20. 943-67 60 13.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7. 112.
HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Haitz Jauregi Aristi (6 urte).
Zorionak familiaren partetik!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Aterkipean ere kantari

TOLOSA • Santa Ageda bezperako abestiarekin hasi ziren berotzen atzo Tolosa Kantari kantu jira ekimene-koak. Betiko moduan Tontokalen elkartu ziren 12:00etan eta aterkipean eta giro ez oso atseginare-

kin hasi baziren ere segituan animatu ziren beraiek, eta baita handik pasatzen ziren guztiak ere. Tolosa Kantariko kantu jira hileko azken larunbatean egin ohi dute aipatu orduan eta lekuan. **R. CALVO**

2-16 urte
DI URTEKO GELAK - udal iruditeka

uzturpe ikastola

herrian haizi eta hezi

ibarmaldan kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen deli lezaguazu eta bisita aholkatuko dugu matrikulazio epea otsailaren 1etik 12ra

9:00ak - 12:00ak / 14:30ak - 18:00ak

1. gela 2. 20000 Saria / Tel: 943 611700 / Fax: 943 650032 / harrerak@uzturpe.net / www.uzturpe.net

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Fleming Ikastetxea.
Hour Hezkuntza Arnoan (2-6 urte)
Lahen Hezkuntza Arnoan (6-12 urte)
Tel.: 943 69 33 12 • Fax: 943 691413
012277ne@hezkuntza.net

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Eniabea & H.I.
Villabona
Eniabea Ikastetxea.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Arnoan (12-16 urte)
Tel. Fax: 943 69 37 33
012952ne@hezkuntza.net

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

SAMARRE O
HEZKUNTZA
www.samarre-0.net
023122@hezkuntza.net

- Hezkuntza 0-6 urterik hasita
- Lahen Hezkuntza

ORDIXE TOLOSAN
HEZKUNTZA
www.ordixe.net
023122@hezkuntza.net

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Bataleragak

Euskaratik eta Euskaraz
Matrikula epea: otsailaren 1etik 12ra

hirukide

zainkerri Jesuitak eskolaplan

www.hirukide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA TOLOSAN